**EBAZPENA**

Jesica Ruiz Pérez, 1. Alkateordeak eta Herrigintza arloko zinegotzi delegatuak, horrela agintzen baitu Alkate andreak dekretu bidez onartutako ordezkaritzak (2023/1707 dekretua, 2023ko ekainaren 29koa; BAOn argitaratua 2023ko uztailaren 19an 132. zenbakian), honako hau erabaki du 358/2024/DL zk.dun espedientearen inguruan

Jarraian aipatzen den programa erregulatzen duen araudia dela-eta, eta Hiritarrak arloko presidentearen proposamenari ekinez, honako hau da programaren testua:

**RESOLUCIÓN**

La 1ª Teniente de Alcalde Jesica Ruiz Pérez, concejala delegada del área de Ciudadanía en virtud de las delegaciones acordadas por la Alcaldesa mediante decreto nº 2023/1707 de fecha 29 de junio de 2023, publicado en el «BOB» número 139 de 19 de julio de 2023, ha dispuesto con relación al expediente 358/2024/DL , lo siguiente

En relación con la normativa que regula el programa referido a continuación y a propuesta del Presidente del área de Ciudadanía y cuyo texto íntegro es:

**LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN DEIALDIAREN BARRUAN ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO KONTRATAZIOA EGITEKO DURANGOKO UDALAREN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZA DEIALDIA 2024.**

**BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA LA CONTRATACIÓN EN EL MARCO DE LA CONVOCATORIA DE LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO PARA ACCIONES LOCALES DE PROMOCIÓN DEL EMPLEO DEL AYUNTAMIENTO DE DURANGO 2024.**

**1- Dirulaguntzaren testuingurua.**

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2024ko martxoaren 20ko Ebazpenaren bidez (2024ko apirilaren 2ko EHAA, 64. zk.), *2024an enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdia* argitaratu zen.

Deialdi honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeei laguntzak ematea, jardueraren xede den lurraldearen garapen sozioekonomikoa eta modernizazioa bultzatze aldera enplegua sortzeko proiektuak martxan jar ditzaten, horien bidez Euskadiko eskualde guztietan modu orekatuan enplegu-aukerak sortzeko,

**1- Contexto de las ayudas económicas**

Mediante Resolución de 20 de marzo de 2024, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, (B.O.P.V. nº 64, de 2 de abril de 2024) se procedió a la publicación de la "*Convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción del empleo para el ejercicio 2024*".

El objeto de esta convocatoria es la concesión de ayudas a las entidades locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con el propósito de poner en marcha proyectos dirigidos a la creación de empleo, que repercutan en el desarrollo socioeconómico y modernización del territorio objeto de actuación, y permitan



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250235503330705144
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

2030rako Enpleguaren Euskal Estrategiarekin eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioarekin bat etorriz.

ofrecer oportunidades de empleo de forma equilibrada en todas las comarcas de Euskadi, en coherencia con la estrategia Vasca de Empleo 2030 y con el principio de igualdad de mujeres y hombres.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden pertsona langabeen enplegagarritasuna hobetzea da deialdi honen azken xede edo helburua.

El objetivo final que se persigue con la presente convocatoria es mejorar la empleabilidad de las personas desempleadas inscritas en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

Durangoko Udalak deialdi horren baitako *Kontratazriorako Laguntzetan* parte hartu du. Udalak laguntza horiek sustatzen ditu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatuta.

Habiendo concurrido El ayuntamiento de Durango dentro de dicha convocatoria a las "*Ayudas a la contratación*", el ayuntamiento promueve estas ayudas contando para ello con la financiación por Lanbide-SVE.

Oinarri arautzaile hauek gardentasun parametroetan sustatzen dira, publizitatearen, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioak bermatzeko, Durangoko enpresa eta langabetuen artean hedapen zabalena izan dezaten.

En aras a los principios de publicidad, concurrencia y objetividad, bajo parámetros de transparencia, se promueven estas bases reguladoras a fin de que tengan la máxima difusión posible entre las empresas y el colectivo de personas desempleadas del municipio de Durango.

**2- Xedea.**

**2- Objeto.**

Oinarri hauen xedea Durangoko Udalak egingo duen deialdiaren baldintzak arautzea da, dirulaguntzak emateko merkatu arrunteko Bizkaiko enpresek kontrata ditzaten Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden durangarrak.

El objeto de las presentes bases es regular las condiciones que regirán la convocatoria y concesión por parte del AYUNTAMIENTO DE DURANGO, de las ayudas dirigidas a promover la contratación de personas duranguesas inscritas en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo en el mercado ordinario por parte de las empresas locales.

Ondorio horietarako, dagokion tokiko erakundearen lurralde-esparruan lantokia eta jarduera ekonomikoa duten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoak hartuko dira tokiko enpresatzat.

A estos efectos, tendrán la consideración de empresas locales las personas físicas o jurídicas, de naturaleza privada, con centro de trabajo y actividad económica en el municipio de Durango.

**3- Aurrekontu kreditua.**

**3- Crédito presupuestario.**



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250235503330705144
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

Deialdi honetarako aurreikusitako zenbateko osoa 2024 urterako 215.611,00 eurokoa da, gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: 81-2410-47101, eta Durangoko Udalaren Aurrekontu Orokorraren ordainduko da.

La cantidad global prevista para esta convocatoria durante el año 2024 asciende a 215.611,00 euros, con cargo a la partida presupuestaria 81-2410-47101, que será atendida con aplicación del Presupuesto General del Ayuntamiento de Durango.

**4- Ekintza lagungarria.**

**4- Acción subvencionable.**

Kontratazioek ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

a) Kontratu mugagabeen modalitatearen bidez formalizatu ahal izango dira kontratuak, bai eta ikuskizun publikoetako artisten eta teknikarien eta laguntzaileen iraupen mugatuko kontratuen bidez ere; halakoetan, gutxieneko iraupena 3 hilabetekoa izango da.

b) Kontratuak lanaldi osokoak edo partzialekoak izan daitezke, baina lanaldiaren % 50ekoak izan behar dute gutxienez.

c) Kontratatutako pertsonak langabetuak izan beharko dira, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa altan egon, kontratua hasteko egunaren aurreko egunean.

d) Kontratatutako pertsonak Durangoko udalerrian erroldatuta egon behar du kontratua formalizatu aurretik.

e) Diruz lagundu daitezkeen kontratutzat jotzeko, kontratuek enplegu-sorrera garbia ekarri behar dute eurekin, diruz lagunduko den kontratuaren xede den langilea lanean hasi aurre-aurreko 6 hiletan enpresak duen batezbesteko langile-

Las contrataciones deberán tener las siguientes características :

a) Los contratos se podrán formalizar mediante la modalidad de contrato indefinido, así como a través de contrato de duración determinada de los artistas y del personal técnico y auxiliar en espectáculos públicos, siendo la duración mínima de estos de 3 meses.

b) Los contratos podrán ser a jornada completa o tiempo parcial con un mínimo del 50 % de jornada.

c) Las personas contratadas deberán estar desempleadas e inscritas y de alta como demandantes de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo el día anterior al del inicio del contrato.

d) La persona contratada debe estar empadronada en el municipio de Durango previo a la formalización del contrato.

e) Para tener la consideración de subvencionables, las contrataciones realizadas por las empresas deberán suponer la creación neta de empleo sobre la plantilla media total existente en la empresa en los 6 meses inmediatamente anteriores a la



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250235503330705144
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

kopuruari begira.

incorporación de las personas cuyo contrato se subvencione.

f) Laguntza-eskaera egin aurretik kontratua sinatuko da eta Gizarte Segurantzan dagokion erregimenean alta emanda egongo da.

f) La formalización del contrato y el alta de la persona contratada en el régimen correspondiente de Seguridad Social serán previas a la presentación de la solicitud.

g) Egingo diren kontratuak sinatzen diren unean indarrean dagoen lan araudiaren barruan egingo dira.

g) Los contratos que se realicen deberán ajustarse a la normativa laboral vigente existente en el momento de la formalización del contrato.

Diruz lagunduko dira 2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean formalizatutako kontratuak.

Se subvencionarán los contratos formalizados durante el periodo comprendido entre el 1 de julio de 2023 y el 30 de junio de 2024.

Diruz lagundu daitekeen aldia urtebetekoa da, kontratu mugagabea egin ondorengo lehen 12 hilabeteei baitagokie.

El periodo subvencionable es de 1 año, corresponde a los 12 primeros meses tras la realización del contrato indefinido.

Enpresek 2025eko uztailaren 31 baino lehen aurkeztu behar dituzte kontratazio-aldi hori (urtebete) justifikatzen duten agiriak.

Las empresas están obligadas a presentar la documentación justificativa de este periodo de contratación (1 año) antes del 31 de julio de 2025.

**4.2- Ez da diruz lagunduko honako hauek kontratatzea**

Enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duen inoren ezkontidea, oinordekoak eta gainerako senideak, odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailaraino, edo sozietatearen izaera juridikoa osatzen duten enpresetako administrazio-organoetako edo zuzendaritzako kideenak.

**4.2- No serán objeto de subvención.**

La contratación del/a cónyuge, descendiente y demás parientes que tengan relación de parentesco por consanguinidad o afinidad, hasta el segundo grado inclusive, con la persona empresaria o con quienes tengan el control empresarial, ostenten cargos de dirección o sean miembros de los órganos de administración de las empresas que revistan la forma jurídica de sociedad.

Enpresa batek langile bat berriz kontratatzea baldin eta aurreko deieldietan laguntza jaso badu.

La contratación por la misma empresa de un mismo trabajador si ha sido subvencionada en convocatorias anteriores.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250235503330705144
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

**5- Erakunde onuradunak.**

1. Oinarri hauetan ezarritako dirulaguntza tokiko enpresek eskatu ahal izango dute, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Lan-egoitza eta jarduera ekonomikoa Durangon izatea.
b) Bere zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren kotizazioan egunean egotea.
c) Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluak arautzen dituen kasuetako batean ez egotea.

**5- Entidades beneficiarias.**

1. Podrán acceder a las ayudas económicas establecidas en estas bases las empresas locales siempre que cumplan todas las siguientes condiciones:

a) Que tengan su centro de trabajo y actividad económica en Durango.
b) Que se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias y de cotización a la Seguridad Social.
c) Que no se encuentren incursas en ninguno de los supuestos regulados en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

**6- Zenbatekoa eta laguntza-mota.**

A.- 8.000 euroko laguntza, lanaldi osoan lan egindako kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren proportzionala izango da.

Laguntzaren amaierako zenbatekoak ez dira izango enpresa kontratatzaileak kontratatutako pertsonen urteko soldata-kostuen % 75 baino handiagoak, gizarte-segurantzara kontzeptu guztien zioz egindako kotizazioa barne.

B.- Ekitaldi publikoetako artista eta langile tekniko eta osagarrientzako iraupen mugatuko eta lanaldi osoko hiru hileko lan-kontratu bakoitzeko, 3.000 euroko laguntza; lanaldi osoko sei hileko edo gehiagoko lan-kontratu bakoitzeko, 6.000 eurokoa.

Denbora partzialeko kontratuen edo hiru eta sei hilabete bitartekoen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren edo lan egindako denboraren

**6- Cuantía de las ayudas**

A. - Ayuda máxima de 8.000 euros por cada contrato de trabajo a jornada completa. En el caso de contratación a tiempo parcial la subvención será proporcional a la jornada trabajada.

La cuantía final de la ayuda no podrá superar el 75 % de los costes salariales anuales de las personas contratadas, incluyendo la cotización por todos conceptos a la Seguridad Social con cargo a la empresa contratante.

B.- Ayuda de 3.000 euros por cada contrato de duración determinada de los artistas y del personal técnico y auxiliar en espectáculos públicos, a jornada completa de tres meses de duración y ayuda de 6.000 euros por cada contrato de trabajo a jornada completa de duración igual o superior a seis.

En el caso de contratación a tiempo parcial o por una duración entre tres y seis meses, la subvención será proporcional a



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250235503330705144
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

proportzionala izango da.

la jornada y/o al tiempo trabajado.

Laguntzaren amaierako zenbatekoak ez dira izango enpresa kontratatzaileak kontratatutako pertsonen urteko soldata-kostuen % 75 baino handiagoak, gizarte-segurantzara kontzeptu guztien zioz egindako kotizazioa barne.

La cuantía final de la ayuda no podrá superar el 75 % de los costes salariales anuales de las personas contratadas, incluyendo la cotización por todos conceptos a la Seguridad Social con cargo a la empresa contratante.

C.- Kolektibo hauetako pertsonak kontratatzea:

- DSBEren titularrak edo onuradunak
- 35 urtetik beherako pertsonak
- Luzaroko langabeak. Iraupen luzeko langabetutzat jotzen dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu-zerbitzu publiko batzuetan lan-eskatzaile gisa izena emanda dauden eta iraupen luzekoak diren langabetuak, kontratazioaren data baino lehenagoko 540 egunetan gutxienez 360 egunez egoera horretan egon badira.
- 55 urtetik gorako pertsonak.

C.- En el supuesto de contratación de personas pertenecientes a los colectivos de:

- Perceptores/as titulares o beneficiarios/as de RGI.
- Personas menores de 35 años.
- Personas desempleadas de larga duración. Se entiende por personas desempleadasde larga duración aquellas desempleadas e inscritas como demandantes de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo u otros Servicios Públicos de Empleo al menos 360 días en el periodo de los últimos 540 días previos a la fecha de la contratación.
- Personas mayores de 55 años.

Laguntzaren zenbatekoa 10.000 eurokoa izango da, lanaldi osoko kontratu bakoitzeko.

El importe de la ayuda será de 10.000 euros por cada contrato de trabajo a jornada completa.

Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lan egindako lanaldiaren proportzionala izango da.

En el caso de contratación a tiempo parcial, la subvención será proporcional a la jornada trabajada.

Laguntzaren amaierako zenbatekoak ez dira izango enpresa kontratatzaileak kontratatutako pertsonen urteko soldata-kostuen % 100 baino handiagoak, gizarte-segurantzara kontzeptu guztien zioz egindako kotizazioa barne

En este caso, la cuantía final de la ayuda no podrá superar el 100 % de los costes salariales anuales de la persona contratada, incluyendo la cotización por todos los conceptos a la Seguridad Social con cargo a la empresa contratante.

D.- Dirulaguntzen zenbateko guztiak % 10 haziko dira, kontratuak emakumeekin egiten direnean.

D.-Todas las cuantías de subvención se incrementarán un 10 % adicional cuando los contratos se celebren con mujeres.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250235503330705144
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

Dirulaguntzaren amaierako zenbatekoak, igoera horiek aplikatzean, ez dira izango enpresa kontratatzaileak kontratatutako pertsonen urteko soldata-kostuen % 100 baino handiagoak, gizarte-segurantzara kontzeptu guztien zioz egindako kotizazioa barne.

El importe final de la subvención, al aplicarse dichos incrementos, no podrá superar el 100 % de los costes salariales anuales de la persona contratada, incluyendo la cotización por todos los conceptos a la Seguridad Social con cargo a la empresa contratante.

Dirulaguntza kontratuaren lehenengo urteari dagokio. Enpresa kontratatzailea behartuta dago kontratatutako pertsonaren enplegua gutxienez urtebetez mantentzera laguntza jaso ahal izateko.

La subvención corresponde al primer año del contrato realizado, la empresa contratante está obligada como requisito para recibir la ayuda al mantenimiento del empleo de la persona contratada durante un mínimo de un año.

Diruz lagundutako lan-kontratuak dirulaguntzaren epealdia amaitu aurretik edo tokiko enpresek egindako kontratu mugagabeen aurreneko hamabi hilabeteetan iraungitzen badira emandako dirulaguntza itzuli beharko da, eta dagokion prozedura izapidetuko da, 20.artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Nolanahi ere, kontratua iraungitzeko arrazoia probaldia ez gainditzea, langileak lana bere borondatez uztea, bidezkotzat jotako kaleratzea edo kontratatutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasuna izan bada, dirulaguntzaren zenbatekoa lan-kontratuak iraun duenaren proportzioan murriztuko da.

La extinción de los contratos de trabajo subvencionados con anterioridad al término del periodo de duración subvencionado o en los primeros doce meses de duración de contratos indefinidos realizados por las empresas locales, supondrá el reintegro de la subvención concedida, tramitándose el correspondiente procedimiento en los términos previstos en el artículo 20, salvo que tal extinción sea debida a la no superación del periodo de prueba,cese voluntario, despido declarado procedente o por muerte o invalidez de la persona contratada,en cuyo caso se reducirá el importe de la subvención en proporción a la duración efectiva delcontrato de trabajo.

Dirulaguntzen onuradunek ez dute laguntza itzuli beharrik izango deialdi honetan kontratatua izateko baldintzak betetzen dituen pertsona bat kontratatzen badute beste bat ordezteko eta ordeztutako pertsonaren kontratua bertan behera uzten badute, betiere kontratazio-aldien batura hasierako kontratuarena bada gutxienez.

No procederá el reintegro cuando se sustituya a la persona cuyo contrato se ha extinguido por otra que cumpla los requisitos para poder ser contratada dentro de la presente convocatoria y siempre que la suma de los periodos de contratación sea como mínimo la del contrato inicial.

**7- Eskaerak aurkezteko era, lekua eta epea.**

**7- Forma, lugar y plazo de presentación de solicitudes**

Eskabideak honako bide hauetatik aurkez daitezke:

Las solicitudes se podrán presentar por cualquiera de estas vías:



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250235503330705144
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

- Herritarrentzako Arreta Zerbitzua (HAZ). Barrenkale 17.
- Durangoko Udalaren egoitza elektronikoa. Dirulaguntzen atalean.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren tokietako edozeinetan, Udalak horretarako izango dituen inprimakietan.

- Servicio de Atención a la Ciudadanía (SAC). Barrenkale 17.
- Sede Electrónica del Ayuntamiento de Durango. Apartado subvenciones.
- En cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en los impresos que a tal efecto dispondrá el Ayuntamiento.

Eskabideak eta dokumentazio osagarria aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2025eko otsailaren 27an amaituko da.

El plazo de presentación de solicitudes y documentación complementaria comenzará al día siguiente al de la publicación de ésta convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia y finalizará el 27 de febrero de 2025.

**8- Eskabide-orriari erantsi behar zaizkion agiriak.**

**8- Documentos que se deben acompañar a la solicitud.**

Kontratatutakoei kontratu bana egingo zaie, eta kontratuari eskatutako dokumentazioa atxikiko zaio. Ez dira hiru eskabide baino gehiago onartuko enpresa edo erakunde bakoitzeko.

Deberá presentarse una solicitud por cada persona a contratar, adjuntando a la misma la documentación requerida y no aceptándose más de tres solicitudes por empresa o entidad.

Kontratatutako dena emakumea edo 6. artikuluan ezarritako diru –laguntzarako gehienezko zenbateko jasotzeko eskubidea duten kolektiboetako batekoa den adierazi beharko da.

En la solicitud de subvención se deberá indicar si la persona a contratar es una mujer o pertenece a uno de los colectivos que dan derecho a la percepción del importe máximo de subvención establecido en el artículo 6.

Dirulaguntza eskabide-orria erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak sinatuta egongo da eta honako agiri hauekin batera aurkeztuko da:

La solicitud de subvención firmada por el/la representante legal de la entidad solicitante quedará conformada por:

1. Diru-laguntza eskaera (I. Eranskina). (Eranskinean eskatzen diren datu guztiak egon behar dira).
2. Egindako kontratazioaren fitxa. (II.Eranskina)

1. Solicitud de subvención normalizada (Modelo Anexo I). (Todos los datos solicitados en la ficha deben estar cumplimentados)
2. Ficha descriptiva de contratación realizada. (Modelo Anexo II).



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250235503330705144
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

3. Konpromiso adierazpena indarrean dagoen laneko arautegia, gizarte segurantzaren kotizazio araubidea edo baliokidea den mutuarena eta laneko arriskuen prebentzioa betetzen dituela ikusteko (III. Eranskina).

4. Aitorpen Erantzulea beste erakunde publiko edo pribatuetan xede bera duen beste diru-laguntza edo laguntzarik eskatu edo lortu duen jakiteko (IV. Eranskina).

5. Banketxeko kontuaren fitxa (V. Eranskina).

6. Zinpeko aitorpena enpresaburuaren, enpresa-zuzendarien eta sozietateen izaera juridikoa duten enpresen Administrazio-Kontseiluko kide diren pertsonen ezkontideak edo senideak ez direla eta haiekin bigarren mailara arteko odolkidetasunezko edo afinitatezko harremana ez dutela ikusteko (VI. Eranskina).

Eranskin guztiek sinatuta egon beharko dute.

7. Erakunde eskatzailearen IFZaren fotokopia.

8. Erakunde eskatzailearen erantzulearen NANaren edo agiri baliokidearen fotokopia.

9. Ogasun Sailean zorrik ez duela egiaztatzen duen agiria.

10. Gizarte Segurantzan zorrik ez duela egiaztatzen duen agiria.

3. Declaración de compromiso del cumplimiento de la normativa laboral vigente, del régimen de cotizaciones a la seguridad social o mutualidad equivalente y de prevención de riesgos laborales (Modelo Anexo III).

4. Declaración responsable de las subvenciones o ayudas solicitadas u obtenidas de otras instituciones públicas o privadas para el proyecto objeto de la solicitud de subvención (Modelo Anexo IV).

5. Ficha de cuenta bancaria (Modelo Anexo V).

6. Declaración responsable de la persona contratada de no ser cónyuge o pariente por consanguinidad o afinidad hasta el segundo grado inclusive, con la persona empresaria o con quienes tengan el control empresarial, ostenten cargos de dirección o, en su caso, sean miembros del Consejo de Administración (Modelo Anexo VI).

Todos los anexos deberán estar firmados.

7. Fotocopia del NIF de la entidad solicitante.

8. Fotocopia del DNI o documento equivalente de la persona responsable de la entidad solicitante.

9. Certificado de estar al corriente de sus obligaciones con Hacienda.

10. Certificado de estar al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250235503330705144
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

11. Enplegu-bulegoan erregistratutako lan-kontratuaren kopia, iraupena eta lanaldia jasotzen dituena. (Ez da nahikoa kontratuaren jakinarazpen orriarekin).

11. Copia del contrato de trabajo registrado en la oficina de empleo, donde conste duración y jornada laboral. (No es suficiente con la hoja de comunicación del contrato).

12. Kontratatutako pertsonaren alta Gizarte Segurantzan onartu izanaren ebazpenaren kopia.

12. Copia de la resolución sobre el reconocimiento del alta de Seguridad Social de la persona contratada.

13. Kontratatutako pertsonaren NAN fotokopia

13. Fotocopia del DNI de la persona contratada.

14. Lanbidek kontratatutako pertsonari buruz egindako «inskripzio-aldiei eta lan-egoerari buruzko txostena».

14. «Informe de períodos de inscripción y de situación laboral» expedido por Lanbide, de la persona contratada.

15. Kontratatutako pertsonaren «afiliatuaren lan-bizitzari buruzko txostena», Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, kontratua hasi eta hurrengo egunean.

15. «Informe de vida laboral de afiliado» de la persona contratada, emitido por la Tesorería General de la Seguridad Social con fecha posterior al inicio del contrato.

16. Alta-egoeran dauden enpresako langileen batez besteko plantillaren txostena, kontratazioaren egunean Gizarte Segurantzak emana.

16. Informe de la plantilla media de trabajadores/as de la empresa en situación de alta emitida por la seguridad social del día de la contratación.

17. Alta-egoeran dauden enpresako langileen batez besteko plantillaren txostena, Gizarte Segurantzak emana, kontratazioaren eguna baino 6 hilabete lehenago

17. Informe de la plantilla media de trabajadores/as de la empresa en situación de alta emitida por la seguridad social 6 meses antes de la del dia de la contratación.

Udalak, hala ikusten badu, eskatzaileei behar beste informazio osagarri eska diezaieke aurkeztutako proiektua baloratu ahal izateko.

El Ayuntamiento podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta información complementaria estime necesaria en orden a la valoración del proyecto presentado.

Dirlaguntza eskaera aurkezterakoan

Con la presentación de la solicitud de



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250235503330705144
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

eskatzaileak deialdiaren baldintza guztiak betetzen eta onartzen dituela aitortuko du.

subvención, la entidad solicitante declara que reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y que acepta íntegramente estas bases.

**9- Akatsak zuzentzea.**

Dirulaguntza eskaerak oinarri hauetan eskatutako baldintzak betetzen ez dituenean, edo eskatutako dokumentazioa falta duenean, Urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluak aurreikusten duenarekin bat, interesdunek 10 egun izango dituzte akatsak zuzentzeko edo falta diren agiriak aurkezteko. Eta jakinaraziko zaie akatsak zuzendu ezean edo falta diren agiriak aurkeztu ezean, eskabidea bertan behera utzi dutela ulertuko dela. Bertan behera geratu aurretik, ebazpena bidaliko zaie, aipatutako legearen 21.artikuluan adierazitakoaren arabera.

**9- Subsanación de deficiencias.**

Si la solicitud de subvención no reúne los requisitos exigidos en las presentes bases, o no se acompañara a la misma la documentación exigida, de conformidad con lo previsto en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, se requerirá a las personas interesadas para que, en un plazo de 10 días, subsanen las faltas o acompañen los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hicieran, se tendrá por desistida de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21.

**10- Dirulaguntza emateko prozedura.**

Dirulaguntzak emateko jarraituko den prozedura norgehiagoka izango da. Horretarako, konparazioa egingo da beraien arteko hurrenkera zehazteko laguntza-mota bakoitzean, 11. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideekin bat, eta ondoren dirulaguntzak proposatuko dira puntu gehien lortu dituztenentzat deialdian zehaztutako mugarekin laguntza-mota bakoitzerako (3. artikulua).

**10- Procedimiento de concesión.**

El procedimiento de concesión de subvenciones se tramitará en régimen de concurrencia competitiva mediante la comparación de las solicitudes presentada, a fin de establecer una prelación entre las mismas, atendiendo a los criterios de valoración fijados en el artículo 11, proponiendo la adjudicación de las subvenciones a aquéllas que hayan obtenido mayor puntuación, teniendo como límite la cuantía consignada en el artículo 3.

**11- Dirulaguntzak baloratzeko irizpideak.**

Dirulaguntzak izendatuko dira jarraian ezartzen diren balorazio-irizpideetan oinarrituta, honako hauek hain zuzen ere:

a) Eskaerak enpresaren tamainaren

**11- Criterios de valoración de las solicitudes.**

